



Frantziako Tourra, bertatik bertara

Igandean, bazkalostean, Andoaingo eta Urnietako herriguneak zeharkatuko ditu lasterketa ezagunak / 2-4

San Juan jaiak giro ederrean igaro dira

Ekitaldi ugari pilatu da egun gutxiko tartean. Parte-hartzaileak izan dira eta Udalak, lehen balorazioan, gizarte eragileen eta udal langileen lana aintzat hartu du / 6-13



**Sorginen gau
magikoa bizi izan
zuten urnietarrek,
Sorginak taldearen
eskutik / 5**



**Frantziako
Tourraren eraginez,
Kaletxikiko jaiak
uztailaren 7tik 9ra
ospatuko dira / 14**



**Urnietako
apaizaren agurreko
meza, Gipuzkoako
Gotzaina bertan
zela / 16**

Andoni Urbistondo URNIETA

Euskal Herrian barrena bizikletan ibiltzen garenok gure aberri txikian tarte lau gutxi dagoelako aritzen gara demandan; ibilbiderik txikiena eginda ere ezinezkoa dela aldaparik ez igotzea. Tourreko ibilbidearen antolatzaileek ere antzeko zerbitu pentsatu zuten Euskal Herrira bisitan etorri, gurean hirutik bi etapa bihurri prestatu, eta Tourrari ze itxura emango zioten hausnartzen hasi zirenean. Euskal Herriko muinoak broma bat izanen direlako tropelak Tourrean gainditu beharko dituen zailtasun orografikoekin alderatuta.

Asko direlako, eta zailak. Tourra ez da bihurria. Bihurria baino, gaizto bezala defini genezake, eta nekea ondo kudeatzen asmatu beharko dute oilarrekin Eliseotako Zelaietako bakera iritsi aurretik. Pirinioak daude, Erdialdeko Mendigunea, Alpeak, eta Vosgeak. Sei etapen muturreko zailtasuna dute, eta beste hainbestek arriskutsu izan daitezkeenaren itxura. Sarri mendate ez hain handiek egiten baitute epaile lana.

Euskal Herriko lehen bi etapetan tentsioa izango da tropelean. Pikeko gainak, Bilboko helmugatik gertu, eta Jaizkibelak urduritasuna ekarriko dute oilarren eskortara. Baionako bukaeran ez hainbeste. Gauzak normal, esprintean erabakiko da Lapurdiko hiriburuko saioa. Laugarrena ere esprintean bukatuko da, eta konturatzerako, Tourra Pirinioetan sartuko da bete-betean: Paue-Laruntze etapa, Biarnoko bihotzean. Euskal Herrira bigarren sartze bat eginenez, gainera, Biarnoko Landatik Zuberoako Montori herrian barrena.

30 kilometro pasatxo handik berriro Biarnora bueltatu arte, Soudet mendatea igaro baino hiru kilometro lehenago. Tarte horretan Montori, Atharratze, Liginaga-Astüe, Ligi-Atherei eta Santa Grazi herriak pasako ditu Grande Boucle-ak. Etapak mamia dauka, eta kontuz, mendiko lehena baita. Soudet Santazitik oso tentea eta luzea da, eta trabeatu egin dakioke norbaiti. Aretara jaitsi, hirugarren mailako Ichere pikoa igo eta Pirinioetako malda ezagunenetakoa gainditu beharko dute: Marie-Blanque, bere alde gogorrenetik, Escot-etik. Azken lau kilometroak



Udaberrian, oso gertu, goi mailako txirindulariak eskualdean barrena ibili ziren. Argazkia aurtengo Itzuliko da. AIURRI

Bihurria baino, gaiztoa

FRANTZIAKO TOURRA Antolatzaileek igotzaileen aldeko apustu garbia egin dute. Nahi beste mendate eta gogortasun bilatuko dute *grimpeur*-ek; luzitzeko terreno gutxi erlojupekoan iaioak direnek

%10etik gorako desnibela, eta 10 kilometroko jaitsiera azkarraren ostean, beste hamar Laruntzeraino. Quebrantahuesos martxa zikloturista egin dutenek ondo ezagutzen dute bidea.

Taktikoki zer egin, zer ez, buruko minak eragingo dizkie etapa horrek kirol zuzendariei, baina ez pentsa Pirinioetako bigarrena samurragoa denik. Mendatean bukatzen delako, Laruntzeko ez bezala: Tarbes-Cauterets Cambasque. Izen horrekin, gure arbaso euskaldunak

EUSKAL HERRIKO LEHEN BI ETAPETAN TENTSIOA NAGUSI IZANGO DA TROPELEAN

paraje horietan ibilitakoak dira ziur! Aspin, Tourmalet eta Cambasque mendateak eguneko menuan: errepide ezaguna noiz-bait Lac De Gaube dotorerara joan bazarete, Vignemale ikusgarriaren magalean. Tarte handia dago Tourmalet gaina eta azken igoraren artean, baina Cauterets-etik gora Cambasque bera oso gaiztoa da: 3.5 kilometro %10etik gorako desnibelarekin.

7. eta 8. etapen lauak dira, Bordelen eta Limoges-en bukatuko direnak. Limoges hiria Erdialdeko Mendiguneko sarbide izan ohi da normalean, eta aurtun ere halatsu izango da. Lau etapa osatuko ditu han Tourrak, eta orografia bihurriari paraje haietan egin ohi duen salda gehitu behar zaio. Ez alferrik! Frantziako zartagina

esaten diote Clermont-Ferrand hiri inguruari. Tentuz kudeatu beharreko etapak izaten dira, eta mendi ezagun edo zail-zailik eduki gabe ere Frantzia erdialdean.

Puy de Dome, 35 urte geroago

Bigarren igandean Puy de Dome mitikoan bukatuko da etapa. 35 urte pasa dira etapa bat han bukatu zenetik, eta egun hara bertaratzeko mugatua dago erabat. Errepidea itxita, eta tren kre-

ETAPA BAKOITZAREN KRONIKA AIURRI.EUS WEBGUNEAN IRAKURRI AHAL IZANGO DA

mailera antzeko bat, aukera bakarra. Edo oinez. Mendate bakarrek etapa dela, pena, baina Puy de Dome gaiztoa da oso. 13 kilometro da luzea, eta %7.7ko batez besteko desnibela dauka. Azken lauak horma handia: %12a. Clermont-en atsedena hartu eta astearteko etapa ere bihurria, da, mila aldapa Vulcania eta Issoire artean. Antzekoa da osteguneko etapa ere: bost mendateko etapa, eta atsedenek ez, apenas, ibilbide guztian. Mendateak, hori bai, laburrak dira, eta nahiko etzanak.

Jura mendikatera etapa bakarrean egingo dute jauzi txirindulariek. Eskualde hartan jokatuko den etapa bakarra Grand Colombier ezagunean bukatuko da, 17 kilometroko aldapatzarra, %7,1eko batez besteko maldarekin. Bigarren asteburua Alpeetan egingo dute bete-betean, bi etapa gogorrekin. Klasikoa, lehena, Morzine-Avoriaz eski estazioan bukatuko dena Joux-Plane ezaguna igo ostean, larunbatez. Bertan txirindularitzako historiako pasadizo asko osatu dira, eta aurtun ere erne, Joux-Plane xelebreak ohore egin baitiezaioko bere legendari. Etapa berean lehen mailako beste hiru mendate igoko dira, aurrez: Cou, Feu eta Ramaz. Igandekoa ere dardarka hasteko modukoa da, Mont-Blanc ederraren magalean. Lehen mailako Montmin, Croix Fry eta helmugako Saint-Gervais Mont Blanc bidean, eta azken horren atarian bigarren mailako koska zitala, Domancyn gora: Col des Amerands, 2.700 metro %11ko maldarekin.

Alpeak hirugarren astean, erabakigarriak

Bigarren atsedean eguna etorriko da gero, Saint-Gervais-en bertan. Merezitakoa, eta beharrezkoa, hirugarren asteko astearteko eta asteazkeneko etapak erabakigarriak izan bide baitira. Asteartean Tour osoko erlojupeko bakarra jokatuko da, eta 22.4 kilometrokoa bakarrik. Passy eta Combloux arteko tarteak, gainera, gorabeheratsua da, azken sei kilometroak gorantz baitira. Horietatik bi eta erdi %9.4ko maldarekin. Asteazkeneko etapa Giroko gogorrenetakoa izanen da: Saint-Gervais Mont-Blanc, Courchevel. 160 kilometrotan 70 maldan gora, eta desnibel metatua ia 5.000 metrokoa. Saisies, Cormet de

Roselend bukaezina, Longefoy eta Col de la Loze mamutzarra 2.304 metrora.

28 kilometroko igoera bukaezina da Loze, eramangarria Meribel eski estazioraino. Kilometro pare bateko arnasa, eta azken 10 kilometroak exigenteak. Lehen erdia %7ko batez bestekoa, eta azken bost mila metroak %10etik gorako malkarra. Tarteak, gainera, %24ko hormatzararak. Ez da goien bukatuko, Miguel Angel Lopezek irabazi zuenean bezala, Courchevel-en baizik. Sei kilometroko jaitsiera bihurria, eta azken 700 metroak eski estazio ezagun horretako helipuertoraino, %11ko batez besteko maldarekin. Diferentzia handiak egingo dira etapa honetan, gogorrena delako eta ziklisten hanka zuztarrak mugamugan egongo direlako dagoneko.

Bi etapa erraz etorriko dira ondoren, eta Parisera iritsi aurretik, azken bala, Vosgeak eskualdean. Arriskatzeko moduko profila dauka Belfort eta Le Markstein Felling artekoak. Etapa urduria izateko osagai guztiak ditu: laburra, 133 kilometro baino ez, sei mendate bidean, 3.500 metroko desnibel metatua eta hauspoari buelta emateko aukerarik ez, apenas, txakalaldiren bat harrapatuz gero. Bigarren mailako hiru mendate, menuko lehen plater, Petit Ballon d'Alsace bigarren plater, 9,3 km. eta 8.1eko batez besteko pendiza. Postrea, Plutzerwasel gaina, 7 kilometro %8.4ra, eta noski, tranpatxoarekin, Le Markstein arte 8 kilometro luze geratuko baitira oraindik, gorabeheratsuak denak. Uztailaren 23an garaipena. Eliseoetako Zelaiak. Paris. Loria. Ohore bertaratu diren denei.



Goi mailako tropela bertatik bertara ikusteko aukera izango da. AIURRI

Tourra bertatik igaroko da, igandean bazkalostean

Aduna aldetik iritsi eta Hernani aldera abiatuko da, Andoain eta Urnieta zeharkatu ondoren

Andoni Urbistondo URNIETA

Iritsi da eguna. Frantziako Tourra bertan da. Bilbotik abiatuko da 2023ko Tourra, larunbat honetan. Eguerdia pasata abiatuko dira Guggenheim ingurutik, eta 17:00tak pasata helmugaratu Bizkaiko hiriburuan.

Bigarren etapa Gasteiztik, Arabako hiriburutik abiatuko da, eta Arabako Lautada zeharkatu ondoren Debagoienan sartuko da Kurtzeta mendatea eta Aramaion barrena. Handik Arrasate, Oñati, Udana, Aztiria eta Goierriko hegoaldea: Zerain, Segura, Beasain eta Ataun, ostera Larraitz igo eta Tolosaldean sartzeko Amezketak, Alegi eta Altzon barrena. Kilometro batzuk gehiago egingo ditu tropelak Tolosaldean, Anoetan gora Alkiza igo eta Asteasuako eremuetan sartu arte.

Beterrin sartu ostean, Zizurkil, Aduna (Irizar enpresako birlbilgunea), Andoain eta Urnieta zeharkatuko dituzte ziklistek, hoge kilometro eskaseko buruan. Herri baretatik egingo du bidea tropelak gure bi udalerriotan, autobideak saihestuz. Aintzat hartu behar da udako oporretako lehen asteburua dela uztailak 1 eta 2koa, eta irteera operazioa izango duela martxan Eusko Jaurlaritzak.

Aintzat hartu ziklistak pasako diren errepideak itxita egongo direla proba pasa baino lau-pabost ordu lehenago. Publizitate karabana ziklistak baino bi ordu lehenago pasako da ibilbide beretik.

Ordutegia, aurrikuspenak

- Andoain: 15:46 / 16:05.
- Urnieta: 15:53 / 16:14.

IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Bi buru, bi aburu



Jonas Vingegaard, aurtengo Itzulian. AIURRI

Tourra Jonas Vingegaard eta Tadej Pogacarren arteko buruz buruko ikusgarria izango da

Edo Jonas, edo Tadej; Edo Tadej edo Jonas. Bi izen horietatik harantzago ez dago ezer: basamortu latza. Tourra bi horietako norbaitek irabazten ez badu denboraldiko lasterketa oneneko historiako ezusteko potoloenetakoa izango da. Izan ere, hain dira nagusi Vingegaard eta Pogacar, lehiaketa partikular batean lehiatzen direla. Horraino, erraza da pronostikoa egitea, baina bietatik bat aukeratu behar izanez gero, noren alde egin beharko genuke?

Asmatzen duenak aberats. Biek 2023 ikusgarria osatu dute, eta elkarren aurka aritu diren proba bakarrean, Paris-Nizan, Pogacar-ek Vingegaard egurtu zuen. Orduan martxoaren ordea, eta orain uztaila. Pogacar, gainera, erori egin zen Liege-Bastogne-Liege proban, eta lehiaketa egunez behintzat justu samar iritsiko da Bilbora. Pogacar-en eraso animarkarrarena baino indartsuagoa dela esan genezake, lehen kolpean garaiezina. Eraso luze mantendu behar denetan, ordea, bikingoak arriskutsua dela erakutsi du, Pogacarrek adina gatz edo gehiago duela, alegia, eta Tourreko mendate luzeetan irauteko gaitasuna erabakigarria izan daiteke.

Vingegaard-Pogacar demaz harago zer? Esandakoa. Gauza gutxi. INEOS-en blokea dugu, Egan Bernalek emango duen errendimenduaren zain, Groupamako Pinot eta Gauduren jarduna, Pinoten azken Tourrean. Bardet, Vlasov, eta agertuko diren izen berriek osatzen dute kiniela.

Andoaingo eta Urnieta udalaren ohartarazpenak

Trafikoan eragin zuzena izango du, hainbat orduz iraungo duen lasterketak

Erredakzioa ANDOAIN, URNIETA

Segurtasun neurri zorrotzak hartu ohi dira profesional mailako lasterketetan. Frantziako Tourra iristean, neurri horiek are zorrotzagoak dira. Adi, argibideei.

ANDOAINGO UDALA

22:00 Ibilbidea, autorik gabe. Uztailaren 1ean, 22:00etan hasita, ibilgailuez libre utziko dituzte Karrika, Aita Larramendi, Zumea, Kaleberria, Juan Bautista Erro eta Kaletxiki kaleak. Ezin-

go da bertan aparkatu. Aparkaleku alternatiboak: Etxeberrieta plaza, La Salleko atzealdeko jolastokia eta Martin Ugalde Kultur Parkeko aparkalekua.

12:30-17:00 Trafikoa itxita. Igandean trafikoa erabat eten egingo dute herrigunean.

URNIETAKO UDALA

12:00-17:00 Trafikoa itxita. Andoaindik Hernanira doan errepide osoa itxita egongo da Idiazabal kaletik igarota. Ibilgailuarekin irten behar dutenek lehenago

egin beharko dute, edo bestela, kotxea aurretik Zabaletako aparkalekuan utzita Lasarte-Oriako bidetik joateko aukera izango dute.

13:00 Idiazabal itxita, oinezkoentzat. Eguerditik aurrera ezin izango da Idiazabal kalea gurutzatu, tropela igaro baino bi ordu lehenago iritsiko baita Tourreko karabana. Lasterketako egunean, Idiazabal kalea ibilgailuetatik libre utziko da. Inguru horietan, bestalde, hondakinen edukiontzia lekuz aldatuko dituzte.



Seinaleak, Andoainen. AIURRI

"Ibilbideak, gurean, gogorra izan behar du"

ANDONI URBISTONDO KIROL KAZETARIA

Frantziako Tourraren kronikak idatziko ditu, egunero, Aiurrin eta Tokikomeko hainbat hedabidetan. Aurten, gainera, lasterketa bertatik bertara igaroko da

Mikel Arberas URNIETA

Euskal Herriatik abiatuko da Tourra. Zergatik egon behar dugu pozik?

Ziurrenik, kirol-ekitaldirik garrantzitsuenetakoa delako, Munduko Futbol txapelketarekin eta Olinpiar Jokoeekin batera. Esaten dute 4.000 milioi bat pertsonak jarraitzen dutela gertutik, eta, ondorioz, horrek sekulako oihartzuna emango dio Euskal Herriari. Munduari zer garen, nor garen, txirrindularitza nola bizi dugun erakusteko aukera ezin hobea da. Hortaz, alde horretatik, izugarritzko oihartzun mediatikoa izango du. Handia izan da inbertsioa, baina pentsatzen da, horren ondorioz etorriko den erantzuna, turismoari dagokionez, oparoa izango dela.

Gure nortasuna eta identitatea erakusteko baliabide edo bitarteko garrantzitsua da. Ezagutzen gaituzte, Pirinioetan ibiltzen gara, Alpeetan ibiltzen gara, mara laranja, ikurrinak gora eta behera. Edozein probatan, hemen, sekulako festa egoten da txirrindularitzarekin. Gure kirol gisa sentitzen dugu eta haiek bada-kite hemen zer dagoen. Horrek ekarri du, zalantzarik gabe, Tourrak bere proba garrantzitsuenak, Euskal Herrian hasia.

Zer da Tourretik gehien gogoko duzuna?

Gaztetan, denok izan dugu buruan Tourra ikustera joatea Pirinio aldera, izan Luz Ardidenen, izan Tourmaleten. Gazte asko joan gara, behin, gutxienez, Tourra ikustera, txirrindularitza probaren bat ikustera. Ziurrenik, horixe da gehien gustuko dudana, gazteen artean sortzen duen miresmena. Gutxien ostera, eragiten duen burrunba, sortzen dituen albo-kalteak... Trafikoan murrizketak, ezin zure etxetik errepide nagusira atera... Baina, beno, bi egun dira urtean, moldatu egin behar. Balantzan jarriz gero, oreka sortzen da. Merezki du ekartzea.



Andoni Urbistondo, Urnietako HK10 hotelean. Tourreko karabanak bertan hartuko du ostatu. AIURRI

Tourreko zein irudi nabarmenduko zenuke?

Oso gazte nintzela hasi nintzen Tourrera joaten. Bada, kuadrillan sekulako barrabaskeria egin genuen hamazazpi urte genituean: urte osoan dirua bildu, furgoneta bat hartu eta Tourra jarraitza joan ginen. Guztira, hamar egunez izan ginen. Era berean, Claudio Chiappuccik estrainakoz irabazitako etapa ikusi genuen Isoar mendatean. Peio Ruiz Cabestany pasatu zuen ihes eginda. Kuadrillako zortzi lagun, furgoneta batean, ume mokoak izanda... Oroitzapen hori daukat, fresko-fresko. Tourreko bataioa izan zen guretzat, pentsa nolako esperientzia puskatzen izan zen hura.

Tourreko ibilbidea, gure errepideetan barrena, zer nolako iruditzen zaizu?

Euskal Herriko ibilbideak, ezinbestean, gogorra eta zaila izan behar du. Arabako lautadan edo Nafarroako Erriberan egongo lirateke etapa lauak, baina ezinezkoa da, bestela. Badakigu zer datorren. Oso bide gaiztoa iruditzen zait, batez ere, Bilboko etapa bukaera, Pikeko gailurrean, nik uste, oilarrak ere jokoan

sartuko direla. Jaizkibelen, akaso, ez. Lehen, sekulakoa zen, baina, orain, plater handian igotzen dute munstro hauek. Hirugarrena errazagoa da. Baina, denetarik, etapa oso polita, ikusgarria, Bilbo inguruetan, mui-noekin, Donostia inguruetan, mendate txikiak eta Bainonakoa samurragoa den arren, ondoren Pirinioak etorriko zaizkigu, oso ezagunak diren gailurrekin. Horiek guztiak ikusteko aukera ederria euskal zaleentzat. **Eta eskualdetik igaroko den ibilbideaz?**

Zorionekoak gara, Tourra geure bailara zeharkatuko duelako. Tolosatik etorrira, Anoeta, Alkiza, Asteasu, Zizurkil, Aduna, Andoain, Urnieta, Hernani... Hainbat herritatik ez da igaroko; horrek zenbait deserosotasun franko eragingo ditu. Baina nik uste dut bertatik bertara ikusteko ona izango dela. "Non jarri?"

"TOURRAK ASMATU DU GUGANA ETORTZEN, MEREZI DUGU HORRELAKO PROBA BAT JASOTZEA"

Non ez?" , dio jendeak. Urnietan, adibidez, ez jarri Salestarrek ikastetxeko jaitsieran, sekulako ziztu joango baitira, 75 kilometro orduko abiadura. Beraz, hobe herri bukaeran, Hernani aldera jartzea, edo, Andoaindik baldin badatoz, Ergoien goi aldea eta biribilgunearen inguruan lasaigo etorriko dira.

Andoaini dagokionez, Karrika leku ona da ikusteko, edo plaza iristen direnean, Basterotik gora. Ez jarri Kaletxikiko biribilgunean, sekulako abiadura hartuko dute. Lasai ikusi nahi badituzu, jarri goranzko aldapa baten amaieran. Egun ona izango da, benetan, pintxo batzuekin eta edari pixka batekin gozatzeko.

Nola azalduko zenieke hain zaleak ez direnei zer den Tourra?

Bike Country deitzen zaio Euskal Herriari. Jende asko ibiltzen da bizikletan hemen, baina zaletasuna ere latza da. Karabana datorrenean, gogo eta grina pitzen da. Beste mundu bat da karabana, ordubete egoten direlako publizitate markak pasatzen, eta izugarritzko azpiegiturak dituzte. Behin hori igarota, motorrak ikusten dituzu, badatoz! Lotura eta miresmen berezia sortzen da. Sekulako izarrak gertu-gertu ikusten dituzu. Momentu polita da, bizitzan gutxitan ikusiko duguna. Donostiakoa ezagutu nuen, eta ez dakigu noiz irtengo den berriz ere Tourra Euskal Herriatik. Hortaz, aprobetxatu egin behar dugu; gozatzeko unea dela esango nuke.

Nortzuk dira faboritoak?

Niretzat bi faborito daude, eta ezustekoa litzateke beraiek garaipea ez eskuratzea: Jonas Vingegaard eta Tadej Pogacar. Bietan, nork? Zaila da jakitea; Pogacar gogoz egongo da, joan den urtean, bigarren gelditu ostean. Hilabeteak egon da lesio-natuta, baina Esloveniako txapelketan itzuli da. Gainera, eraso-kolpe bortitzagoa dauka. Bestalde, Vingegaard-ek ere proba ederrak egin ditu Tourraren atarian; erresistentzia du eta taldearen eragina handia izango da. Jumbok UAE Emiratesek baino talde hobeeagoa dauka. Vingegaard-ek irabaztea nahiago dut.

Euskal izenen bat nabarmenzerik bai?

Asko. Zazpi daude, Mikel Landak hor ibili behar luke, podiuma lortzeko borrokan. 33 urte dauz-

ka jada, ibilbidea oso da bere aldeko. 22 kilometro soilik dauka erlojupekoetan eta mendi asko. Inkognita bat da, era berean, nola dagoen fisikoki. Dauphine Liberen ez zen oso ondo ibili, baina hiru aste igaro dira eta, seguraski, bere azkeneko aukeretakoa bat izan daiteke podiumera hurbiltzeko. Kontua da aurkari asko izango dituela alboan, zeren esan baitugu, Pogacar Vingegaard, Vingegaard Pogacar, beren aldaretik jaitea ezinezkoa izango da. Hindley, Gaudu, Pinot, Bardet, Bernal, Carapaz... Kalitate handia dago, eta, itxuraz, eskilara bakarra. Zaila dago asmatzen nor gera daitekeen hirugarren koska horretan. Baina Landa hautagaietako bat da. Besteak? Nire ustez, etapan bila joango dira. Kontuz Pello Bilbaoekin. Bilboko etapa begiz jota dauka ezan du, etapa irabazten ahaleginduko dela. Baina beste asko ere bai, Omar Fraile, Jon Izagirre, Alex Aranburu...

1985az geroztik, ez dago nafarrik. Horrek arreta eman dit. Euskaldunen kopurua gero eta txikiagoa da, eta nik uste dut, horrek erakusten duela harrobi-lanean lan handiagoa egin behar dela edo ez direla gauzak ondo egiten ari.

Pertsonalki, Pello Bilbao irabaztea nahiko nuke, oso mutil ona delako. Horrez gain, Mikel Landak podiumera igotzea merezi duela esango nuke, baina, oro har, euskaldun guztiek goi postuetan geratzea nahiko nuke.

Beste alderdiren bat nabarmenduko al zenuke?

Gozatzeko eta hurbiltzeko Tourrera eskatuko nieke herritarrei. Erakus dezagula tentuz eta errespetuz nolako garen. Ez bultza txirrindulariak, ez korri egin txirrindularien ondoan, errespetatu, gu garen bezala erakutsi eta munduak ikus dezala hemen Euskal Herrian txirrindularitza maite dugula eta guretzat nortasun edo nazio erakusleia bat dela. Tourrak asmatu du gugana etortzen, merezi dugu horrelako proba bat jasotzea.

Lasterketa egunari begira, ba al daukazu aholkurik?

Errespetuz jokatzea, batez ere. Txirrindulariak azkar doaz. Aldapa goretan, ez bultza, ez egin korri ondoan. Babestu. Animatu bai, baina errespetuz jokatzeko saiatu. Horrela ikusiko da Euskal Herrian nola sentitzen dugun txirrindularitza.



Aurtengoan ikuskizuna San Juan plaza izan da. AIURRI

Ikimilikiliklik, Sorginen eskutik

Sua piztu zen Urnietan, ekainaren 23an, urteko gaurik magikoenean. Sorginen akelarreak eta Txanbolin Txistulari Bandaren kontzertuak girotu zuten ostiral iluntzea. Ikuskizunaren bideoa eta argazki gehiago ikusgai daude Aiurri.eus gunean

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Uda ate-joka dela iragarri zuen joan den ostiralean, ekainaren 23an, San Juan plaza gorritu zuen suak. Ohiturak agindu bezala, makila bat herritar bilduko ziren, eguzkia ezkutatu orduko, urteko gaurik laburrenari ongi-etorria emateko. Sorginen eskutik, magiaz beteriko hitzorduez gozatzeko aukera izan zuten urnietarrek.

Ikuskizun nagusia baino lehen, Txanbolin Txistulari Bandak ipini zion melodia akelarreari, harik eta, pixkanaka-pixkanaka, jendea gerturatu ahala, 22:30ean, emanaldia hasi zen arte. Ondoren ere lekukoa hartu zieten Sorginei beren doinuek, suaren bueltako giroa epeltzeko.

Elizako horman proiektatutako ikus-entzunezko labor batekin ekin zioten ikuskizunari, segidan, jendaurreko dantzeekin, jarraipena emateko. Inkisizioa, sorgi-

nak, Mari, Akerra... Askotariko pertsonaia mitologikoez hartu zuten parte bertan, doinu zaharrek eta garaikideak uztartuta. Behin ikimilikiliklik eginda, lehen txinparta piztu zuten Sorginek: ohikoa baino txikiago izan zen sua, Santa Leokadia

ermita parean, espazio murriztagoa baitago, Plazido Muxikarekin alderatuta. Nolanahi ere, ez zen oztopo izan hori, San Juan eguneko bezperarekin, gozatu ederra hartu baitzuten tenperatura beroen gogoz eta opor grinaz dabilzan urnietarrek.



Urnietako
udala

Ezinbesteko hitzordua Urnietan



Irudiak eskaini zituzten, elizaren paretean. AIURRI

Aurten, San Juan plazan Tokiz aldatu dute aurten sua, Plazido Muxikaren eraberritze-lanak medio. Halere, ez zen hitzorduko berrikuntza bakarria izan: elizako paretan proiektatuta, laburmetrai batez gozatzeko aukera izan zuten urnietarrek.



San Juan sua, plazan. AIURRI

Sua eta Sorginen emanaldia Adin guztietako herrikideek osatzen dute Sorginen taldea. Hala, doinu berriak eta zaharrak uztartuta, ikuskizun ederra eskaintzen diote herriari San Juan egunaren bezperan, suaren bueltan.



Txanbolin Txistulari Banda, taula gainean. AIURRI

Txanbolin Herriko makina bat hitzordutan hartzen du parte Txanbolin Txistulari Bandak. Hala, honetan ere ez zuen hutsik egin. Ikuskizuna baino lehen, baita ondoren ere, San Juan plaza girotu baitzuten.



Urki dantza taldeak, San Juan bezperan, suaren inguruan eskaintzen duen saioa ikusgarria da. **AIURRI**

Jaien hasiera, bikaina

Ikasturtearen amaierarekin bat eginez, eta uda beteko eguraldiak lagunduta, San Juan jaien hasiera bikaina izan zen. Ekitaldiz beterikoa, eta parte-hartzailea. Jendetza ibili zen jai-eremuan, arratsaldean hasi eta goizaldera arte

Erredakzioa ANDOAIN

Jai-giroaz gozatzeko gogoia agerikoa zen, ekainaren 23an. Arratsaldean hasi eta, goizaldera bitarte, herrikide asko kalean zain ziren, gau magikoaz gozatu nahian. Lortu zutelakoan gaude. Eskaintza ere bikaina zelako. Ikusmin handia zegoen Goikoplazan, iluntzean, agintaldi berriko lehen Soka-dantza izan zelako. Oro har, ondo moldatu ziren partaide guztiak, eta herrikideek saiakera txalotu zuten.

Lehenago, jaiaren ikur bilakatu den kartelaren sari-banaketa ekitaldia egin zuten. Marta Lasa Kultur zinegotziaren lehen ekitaldi publikoa izan zen, eta bere buruaren aurkezpena egiteko aukera baliatu zuen. Alboan izan zuen Haizea Barandiaran zinegotzia. Helduen mailako sariduna Maria Amores izan zen. Andoaindarrak adierazi duenez, kartela egiteko, senarraren eta semearen laguntza izan zuen. Bigarren saritua

Maidar Arabaolaza izan zen. Haur eta gaztetxoek mailan, lehen saria Nile Becerra Arribabalaga gaztearentzat izan zen.

Pregoia, Salbe Gorena, Agustín Leitza elkartearen danborrada, suaren inguruko ospakizuna... Aurreko urteetan bezala, esanahi berezikoak dira andoaindar askorentzat. Gauerdian iritsi ziren hitzordu jendetsuenak: Korrontziren emanaldia eta, bereziki, ETS En Tol Sarmiento taldearena.



Agustín Leitza elkarteko danborrada, San Juan bezperan ohikoa da. **AIURRI**




Lasa eta Barandiaran zinegotziekin batera, Kartel lehiaketako irabazleak. **AIURRI**



Alvarez alkatea. AIURRI



Alonso dantzaria. AIURRI



Mikelez zinegotzia. AIURRI



Alkain zinegotzia. AIURRI



Andoaino Erraldoiak udaletxera begira, Euskaldunako lagunez inguratuta. AIURRI



Jaien hasierako pregoia irakurri zuten Euskaldunako kideek. AIURRI



Andoaino Udal Musika Eskolako abesbatza, Salbe Gorena emanaldi bereziari hasiera eman aurretik. AIURRI



Udal Musika eskolako abesbatza gaztea. AIURRI



Alberto Agirre abesbatza, Joxe Mari Oizartzabal eta Myriam Ulangarekin batera. AIURRI

BEHERA

JON ANDER UBEDA
KAZETARIA

Elebitasuna euskararen aldekoa ez denean

Elebitasuna bada, gizartearen aurrean, zuzentasuna eta oreka erakusteko modua. Euskal komunitateari jator jokatu dela iradokitzen zaio, gure-gurea den hizkuntza erabilita. Eta, erdaraz arituz, ez dugula bazterrean utzi nahi adierazi diogu erdal komunitateari.

Inork ez badu kontrakorik esaten, fenomeno!

Tarteka, gehienetan ez denean, zuzentasuna eta oreka erakusteko modu hori euskaldunon hizkuntzaren kaltetan izaten da. Aurtengo jaien hasierako adierazpena adibide argigarria izan zen.

Euskaldunari pregoia irakurtzeko aukera eskaini zieten, ekainaren 23an. Merezitakoa, dena esatera. Lehen aipamenak euskaraz eta erdaraz egin zituzten, herri osoari zuzendurikoak. Horraino, ondo. Ondo, baldin eta beren asmoa hori bazen.

Pregoiaren bigarren zatia ere elebitan izatea ulergaitza egin zitzaidan. Neskato bat aritu zen hizketan, bere gisako herrikideei mezu argia adierazteko: "Ondo pasa festak, gozatu jaiak: askatasunean, berdintasunean, aniztasunean eta batez ere, beldurrik gabe!". Adierazpen berbera egin zuen, jarraian, gaztelaniaz.

Hori ere erdaraz adierazi behar ote zen? 2023an, Andoainen, haur eta gaztetxo guztiek ikasten dute euskaraz, euskararen aldeko konpromisoa argia duten ikastetxeetan eta euskaraz mintzatzen zaizkien irakasleen artean. Euskaraz dakien komunitatea da, haur eta gazteena. "Ondo pasa festak, gozatu jaiak..." euskaraz adierazitako esaldi indartsu hori bigarren mailako bilakatu zen, erdaraz hitzez hitz errepikatzen hasi zen une berean. Adin-tarte horretako den-denek ulertu zuten mezua, euskaraz.



Axeri Dantza parte hartzaileena izan da aurtengoa. Bero ikaragarriarekin, gainera. Argazkiak eta bideoak, nahi adina, ikusgai daude Aiarri.eus webgunean. AIURRI

"San Juan eguna handia da-ta"

Uda beteko eguna izan zen. Eguerdian, tenperatura ohikoa baino handiagoa zen, itzaletik ibiltzeko modukoa. Eguzkipean, axeriek dena eman zuten. Egun eder baten lehen hitzordu nagusia izan zen

Erredakzioa ANDOAIN

"Herri kirolak, txuleta jana / Rocka, mariatxiak ta dana. / Dantza ta kanta, / ta osatzeko bertsoak falta. / San Juan egun handia da-ta". Agurreko bertsoan Maialen Lujanbiok bikain laburbildu zuen San Juan eguna. Egun handia baita, Andoainen. Bertsoak luzeagoa aukeratuz gero, pilota partidak, txalaparta saioa eta danborrada erantsiko litzuzke.

Ekainaren 23a kale giroaz gozatzeko eguna izan bazen ere, San Juan eguneko ez zen gutxirako izan. Eguraldiak ere lagundu zuen. Aukeran, eguerdi partean, bero gehiegitzo egin bazuen ere. Bereziki, Axeri Dantzan. Hala eta guztiz ere, herrikide ugari hurbildu zen eguerdian plazara. Udal Musika Eskolako Bandaren emanaldia, beroagatik, Kontzejupean egitea erabaki zuten. Erabaki zuzena, inondik

inora. Itzaletik ibiltzeko eguna baitzen. Txuleta-jatean itzala lortzeko eginahalak egin zituzten, beroak zeharkalderik ez eragiteko. Goikoplaza eta Nafarroa plaza inguruak ekitaldiz bete ziren, arratsaldean. Bertso saioa, Andoaindara elkartearen danborrada, herri kirol erakustaldia... iluntzera bitarteko ekitaldiak parte hartzaileak izan ziren. Gaua mariatxiekin eta Zea Mays taldearekin borobildu zen.



Axeri Dantzan herrikideek parte hartze zuzena dute. AIURRI



Olagain Txistulari Elkarteko kideak, ezinbestekoak Axeri Dantzan. AIURRI




Auzolanean eredu dira Andoaingo auzoetako jai batzordeak. San Juan jaietan txuleta-jatea antolatzeke elkartzen dira. Lana egiteaz gain, ederki pasa zuten. AIURRI



GORA

XABIER LASA
KAZETARIA

Jaiak aitortza adierazteko aproposa



Ackzesible taldeko lagunak. AIURRI



Udal Musika Eskolako Bandak, beroa zela eta, Kontzejupean eskaini zuen emanaldia. Argazkiak eta bideo-sorta Aiurri.eus gunean ikusgai daude. AIURRI



Lanz eta Emezabal. AIURRI



Andoaindarra elkarteak San Juan egunean kalez kale ibili zen. AIURRI



Herri kirolarien erakustaldiak zaletuen arreta piztu zuen. AIURRI

Ackzesible taldearen eskaerari bidea eman diote

Aukera eskubide berdinak aldarrikatzen ditu elkarteak, herrikide guztientzat. Mugikortasun mugatua duten pertsoneri, ikuskizunak baldintza txukunetan jarraitzeko aukera eskaini die Andoaingo Udalak. Ekimenak hobera egin dezan, hurrengo urteetan.

Jon Lanz

Eguneroko lana behar bezala egiten duen horietakoa da, Bastero Kulturguneko harreran dagoen langilea. Udal Musika Eskolako Bandak aitortza egin zion Basteroko langileari. Keinu zinez polita, merezimendu handikoa. Lanzi eta bera bezalako langile askori esker udal zerbitzu ugari primerakoak dira, Andoainen.



Axeri Dantza, herri kirolak eta bertsoak San Juan eguneko osagaiak izan ziren. AIURRI



Gaztelekuko gaztetxoaren arteko partidak eta Berria finala, San Juan egunean. AIURRI



Saridunak, Udal ordezkariak eta Fernandez Esperilla sendia, lasterketaren amaierako sari banaketa ekitaldian. AIURRI



Ezkerrean, Aimar Alarcia txirrindulari lasterketako irabazlea. Eskuinean, Kontsejupeko finaleko argazkia: Julen Gaztañaga-Aimar Beroz 22-16 Mikel Arruti-Beñat Salbador. 3.; Mikel Gaztañaga-Joseba Beroz. 4.; Xabat Amilibia-Mikel Arberas (Ander Olasagasti ordezkatzuz).



GORA

JON ANDER UBEDA
KAZETARIA

Merezitako omenaldia Fernandez Esperilla familiari



Armando eta Nerea, artxiboko irudian. AIURRI

San Juan jaietan bikotekako krosa antolatzen du Zumeatarra kirol elkarteak. Aurten ideia bikaina izan dute, txalogarria. Iraganean lasterketan parte hartzen zuen Nerea gaztetxoaren izena ipini diote lasterketari. Urteak igarota ere, Nereak arrasto sakona utzi baitzuen Andoainen.

Igande eguerdian, lasterketa amaituta, gogoan hartu zuten Nerea. Armando aita, Manoli ama eta Ainhoa ahizpa gaztea hunkituta igo ziren taula gainera.

Ez zuten hutsik egiten bikotekako lasterketan

Armando eta Nerea aita-alaba hutsik egiten ez zuen bikoteetako zen. Beste guztiakin batera irteten ziren lasterka, eta denen pare korrika ibiltzen ziren kalean gora eta behera. Ibilbidean zehar txalo zaparrada jasotzen zuten, txalo bakoitza aitortza eta omenaldi modukoa izanik.

Garun paralisia zuen Andoaingo gaztetxoak. 14 urte zituela, 2021eko martxoaren 4an zendu zen. Haren heriotzak eragin handia izan zuen udalerrian. Zumeatarrari esker, gogoan izaten jarraituko dute herritarrek, hurrengo urteetan.



Musika Eskolako MuGaz taldea, Mirari Irurtzun zuzendari duela. AIURRI



Artisautza eta janari azokan haurrentzako tailerra. AIURRI



Artifiziozko suak, Caballer pirotekniaren eskutik. AIURRI



Hiru ikastetxeetako ikasleek saioa izan zuten Goikoplazan, agintari txikiak balkoian zirela. AIURRI



Agintari txikiak, udaletxeko balkoian. AIURRI



Duela hogeiei urte gurasoek soinean haurren askaria eramaten zuten. Egun, bistakoa da zein den joera. AIURRI



La Salle Berrozpe, Aita Larramendi ikastola eta Ondarreta ikastetxeetako ikasleak kalez kale ibili ziren, Goikoplazara iritsi bitarte. AIURRI



Goikoplazan jendetza elkartu zen "Cavaldeath" ikuskizunaren amaiera ikusteko. AIURRI

Adinekoen bazkaria

Jaietan, Udalak harrera egiten die 80 urtetik gorako herrikideei. Asteartean taldeko argazkia atera zuten Goikoplazan. Urkik eta Olagainek agurra dantzatu ondoren, denak kalejiran trikitilariekin abiatu ziren Bastero aldera. Bertan bazkaldu zuten.





Klaap dantza konpainiako kideak, jaietako azken eguneko emanaldian. AIURRI



Bakartxo & Joseba akademiako dantzari gazteak, astearte arratsaldeko ekitaldian. AIURRI



Zuena eta Zumba Lokura dantza taldekoak, jaien azken eguneko emanaldian. AIURRI

LEHEN BALORAZIOA

MARTA LASA, DIEGO BARRASA ANDOAINGO UDAL GOBERNU TALDEKO KIDEAK

Jaien lehen balorazioa

Behin-betikoa jai-batzordeak egingo du; baina, lehen balorazio honetan esan dezakegu jaiak positiboak izan direla, andoaindarraren parte-hartze handia izan dutenak. Jaiak, oro har, lasaitasunez eta modu baketsuan igaro dira. Larunbatetik igandera bitarteko gauean zenbait liskar izan baziren ere, jaiak modu lasaian igaro dira.

Logikoa denez, jai-programa itxita zegoen udal gobernu berria kargura iristerako. Ezin izan dugu aldaketarik egin, eta gure lana azken xehetasunak lotu eta intzidentziak kudeatzea izan da. Edonola, astebetean mugikortasun arazoak dituzten pertsonen zuzendutako espazio berezituak egokitzea lortu da. Ackzesible plataformarekin elkarlanean egindako lana izan da, oso positibo baloratzen duguna. Etorkizunera begira lanean jarraituko dugu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu jaien antolaketan parte-hartu duten herri eragile guztiei; baita lanean jardun duten udal langile guztiei. Badira hobetu beharreko hainbat alor: Horieta bat herri eragileek jaien antolaketan garrantzia handiagoa hartzea izango da. Andoaingo motorra dira, eta erabaki organoetan egotea bermatu behar dugu.

Hausnarketa auzoetako jaietara ere zabaldu behar da. Arlo ekonomikotik harago, zailtasun asko daude jaiak aurrera eramateko. Udala horren jakitun izan behar da, jaien antolaketan laguntzeko lanak erraztuz. Datorren asterako Kultura sailak jai batzordearen bilkura deituko du, balorazio sakonagoa eta partekatua egin asmoz.



Diego Barrasa eta Marta Lasa zinegotziak. AIURRI

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

SAN JUAN JAIK ANDOAINEN

Jaien jarraipena
ARGAZKIAK, BIDEOAK

www.aiurri.eus

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 29

ANDOAIN Argazki-erakusketa

Erakusketa kolektiboa, herriko argazkilarien eskutik. Xabier Alkorta, Eduardo Arreseygor, Bertol Arrieta, Haizea Brosa, Itziar Gutierrez, Xabier Huitzi, Jon Jauregi, Juanan Lazkano, Aitor Regillaga, Maddi Trutxuelo, Nerea Uralde eta Rosa Zozaya dira mostra kolektiboko partaideak.

Azken eguna: Ekainak 30. Bastero.

ANDOAIN Erakusketa

Koadroak ikusgai, hilabete osoan.
Ekainean. Goiburu Golf Klub.

URNIETA Deialdia

Pilotalekuak erabilera librea izango du irailaren 1 arte.

Ordutegia: 09:00-21:00.

ANDOAIN Bertso saioa


San Pedro egunarekin bat eginez, saioa Kaletxikiko Berrozpe kaperan. Bertsolariak: Aitor Mendiluze, Alaia Martin, Jon Mendiluze, Libe Goenaga, Nerea Elustondo eta Ion Beloki. Gai-jartzailea: Xabier Ariznabarreta. Frantziako Tourra dela-eta uztailaren 7tik 9ra ospatuko dira Kaletxikiko jaiak.
Berrozpeko kaperara, 19:30.

OSTIRALA 30

URNIETA LEHIAKETA

2023ko Sanmielak iragartzeko kartel lehiaketa martxan da. Saria 500 eurokoa da.

Azken eguna: Ekainak 30. Bertan.

**ANDOAIN Familientzako ipuin kontaketa saioak**

Euskara lansailak ekimen berria abiarazi du. Lehen saioa Goiburun izan zen, hilaren 28an. "Lamiak Leitzaranen", Juan Krutz Igerabideren eskutik, Otietan. "Aho bete jolas", Kontalari2 konpainiaren eskutik, Sorabillan.
Uztailak 4, asteartea. 17:30, Leitzaran Bisitarien Etxea. Otieta.
Uztailak 5, asteazkena. 18:00, Sorabilla.

IGANDEA 2

ANDOAIN, URNIETA Tourra

Bazkalostean bertatik bertara igaroko da txirindularitzako hitzordurik garrantzitsuenetakoa, eskualdetik. Xehetasunak, 3. orrialdean.

ASTEARTEA 4

ANDOAIN Ipuin kontaketa

Juan Krutz Igerabideren eskutik, "Lamiak Leitzaranen" ipuina. Familia-ikuskizuna.
17:30, Otieta.

ASTEAZKENA 5

ANDOAIN Ipuin kontaketa

Kontalari2 konpainiaren eskutik, "Aho bete jolas". Familia-ikuskizuna.
18:00, Sorabilla.

OSTIRALA 7

ANDOAIN Kaletxikiko jaiak

Auzo bazkarian txartela erosteko epea uztailaren 4an amaituko da. Salgai, Patxi Mendikute harategian.
19:00, Jaien hasiera Kandidorekin.

UDA ZINEMA KALEAN

**"Los Minions, el origen de Gru"**

Zuzendaria: Kyle Balda, Brad Ableson, Jonathan del Val.

Herraldea: AEB (2022). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Marrazki bizidunak. **Iraupena:** 86 min. **Eguna:** Uztailak 6, osteguna. 19:00, Goikoplaza.

Minionsak eta Gru

70eko hamarkada da, eta Gru bere auzoan hazten ari da, orrazkera xeleeen eta kanpai-praken "boom" betean. Bilau talde ospetsu baten jarraitzaile sutsua denez, Gruk plan bat asmatu du haiek in lan

egiteko bezain gaiztoa dela erakusteko.

Zorionez, bere jarraitzaile leialen laguntza du, Minionstarrena.

Beti prest baitaude pasatzen diren lekutik kaosa sortzeko.

Hiru saio Andoainen, kale giroan

Uda iristearekin batera, Andoaingo Udalak kale giroan hiru film emanaldi eskainiko ditu. Goikoplazan eta Etxeberrieta plazan eskainiko dira, eta euri iragarpenik izanez gero Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian eskainiko dira. Bigarren urtez jarraian filmak iluntzeko 19:00tan eskainiko dituzte.

Hiru pelikuletatik bat, euskaraz bakarria izango da. Aurtengo eskaintza:

- Uztailak 6, osteguna. Goikoplaza: "Los Minions, el origen de Gru".
- Uztailak 12, asteazkena. Etxeberrieta Plaza: "Nora" (euskaraz).
- Uztailak 20, osteguna. Goikoplaza: "Tadeo Jones 3".



AIURRI

3x3 saski txapelketa Gaztetxean

Uda gainean da, eta bueltan da 3x3 saskibaloia txapelketa. Andoaingo Gaztetxearen eskutik, giro ederrean ospatzen da lagunarteko lehiaketa. Uztailaren 10etik 21era bitarte, izen-ematea egitean, partaide bakoitzak kamiseta bana jasoko du. Horretarako, azken eguna ekainaren 30a izango da.



AIURRI

Gaztetxeko pilota txapelketa

Astehelenean ekin zitzaion Gaztetxeko pilota txapelketari. Aurtengoan ere hogeitik gora bikotek parte hartu dute, urteroko hitzorduan. Lehen jardunalditan, jende ugari bertaratu da Goiburuko frontoira, eta datozen egunetan ere frontoia betetzea espero da. Txapelketako finala eta hirugarren zein laugarren postuak uztailaren 7an jokatu dira, ostiralarekin.

Jauregi eta Olasagastiren ontzia

Sanpedrotarra, inguruotan, Jon Jauregi andoaindarraren eta Imanol Olasagasti adunarraren ontzia da. Aurreko asteburuan San Pedrok amaiera bikaina eman zion Mundakako estropadari. Asier Carballedaren taldeak KAE-1eko sailkapen nagusiko lehen postuan da.



SANPEDROTARRA



AIURRI

Ipar martxa Urnietan

Ulteiria Martxa Nordikoa Kirol Elkarteak antolatuta. Podiumak: **Gipuzkoako Txapelketa:** 1.Greta Azurmendi. 2.Arantxa Astigarraga. 3.Garbiñe Castañares. / 1.Gorka Aulestia. 2.Igor Iparragirre. 3.Eduardo Alberdi. **Open txapelketa:** 1.Isabel Pinedo. 2.Esther Marin. 3.Marian Villanueva. / 1. Antonio Cobo. 2.Migel Angel Mancilla. 3.Jose Luis Ruicoba.




ZORION-AGURRAK



ANDOAIN Enaitz Agirre
Datorren uztailaren 2an Enaitzek 14 beteko ditu, zorionak, eta horrela jarraitu jator-jator. Muxuak ebeko guztion partetik.



ANDOAIN Oier Agirre
Maitzaren 11n hamaika urte ospatu zituen. Zorionak txapelkun, segi holako saiatua izaten. Muxuak etxeokoen partetik.



ANDOAIN June San Jose Sevillano
Uztailaren 1ean, eguzkiari lehenengo bira emango diozu... Zorionak! Ondo ospatu eguna eta ez galdu irribarre hori! Amatxoren kuadrila.



ANDOAIN June San Jose Sevillano
Uztailaren 1ean, eguzkiari lehenengo bira emango diozu... Zorionak! Ondo ospatu eguna eta ez galdu irribarre hori! Amatxoren kuadrila.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri hamaboskarian. Oso erraza da, eta dohainik!

- www.aiurri.eus
Zorion agurrak atalean.
- **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37
- **diseinua@aiurri.eus**
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain
- **Telefono zenbakia:** 943 300 732.

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Osasun zentroa: 943 006 670.



Xabier Murua, hamar urtetan laguntzaile izan dituen zenbait urnietarrekin, meza amaitu ostean. Ezkerretik hasita: Maripi Sarasola, Bila Fuentes, Manuel Mayo, Maria Jesus Larrarte, Lurdes Igerategi, Belen Jimenez eta Maite Aranzadi; aurrean, Izaskun Miner. AIURRI

Xabier Murua apaizaren agurra

Xabier Murua Bereziartua apaizak Urnietako fededunei agur esan zien igandean, hamarkadan bertako parrokoa izan ostean. Fernando Prado Gipuzkoako gotzaina ondoan izan zuen azken mezan, San Migel elizan

Xabier Lasa URNIETA

Urnietako fededunek esker oneko agurra eskaini zioten mezan barrena; dantzari gazteek aurraskua egin zioten lehenbizi, eta meza amaiturik, hamaiketako jendetsua antolatu zuten kontzejupean. Xabier Murua Bereziartuak hamar urte egin ditu Urnietan parroko gisa; 2013ko irailean heldu zen, bertan 30 urte egin ostean erretiroa hartu zuen Iñaki Aranzadiren tokia hartzeko asmoz.

Urnietan ez ezik, azken sei urtetan Astigarragan ere apaiza gisa jardun izan du, Donostiako Elizbarrutiak bizi duen apaizen eskasia dela eta. Hain zuzen, Urnietako eta Astigarragako ohiko mezak (larunbatetan igandetan, meza bana) eta gainerako elizkizunak (bataioak, jaunartzeak, ezkontzak, hiletak...) bere gain hartu behar izan ditu. Egin behar horiei gehitu behar izan dizkio Hernanikoak, hango apaizaren laguntzaile gisa.

Gurasoen zainetak bultzatuta

Meza Fernando Prado Gotzainak eta Xabier Muruak eman bazuten ere, aldarean ondoan eduki zituzten Jesus Salegi, Jose Luis Pineda eta Asentxio Iguaran apaizak.

Prado gotzainak igandean eman zuen sermoian Muruaren lekualdaketaren zergatia azaldu zuen, "Zainketa aringarrien premian dauka aita, eta hura zaintzeko erabakia hartu du; bere amak ere semea ondo behar

Azken meza, aurreko igandean



Meza nagusiaren ostean, hamaiketakoan bildu ziren guztiak. AIURRI



Ohorezko Aurraskua egin zieten Fernando Pradori eta Xabier Muruari. AIURRI

du une honetan. Gauzak horrela, niri, bere laguna, anai, artzaina eta gotzaina naizen aldetik, ondo iruditu zait atsedean hartu dezan eta familiarekin gertu egon dadin. Hori bai, gurasoekin dagoen bitartean, Donostiako Gros auzoan kokatzen den kristau komunitate batean apaiza gisa jarraituko du, hots, Donostiako Mendiko San Jose Mojen Kongregazioaren elizan eta bertako zahar egoitzan apaiza izango da aurrerantz. Era horretan, gainera, Xabier Donostiako Elizbarrutitik oso gertu eduki dugu, eta laguntza eskura edukiko dugu edozertarako, izan ere, Urnietako fededunek, ondo baitakizue zenbat dohain dauzkan Xabierrek".

Prado gotzainak San Migel parrokan bildu ziren herritarri iragarri zien jada izendatuta dagoela nor izango den Urnietako parroko berria, baina zenbait tramite direla eta, oraindik ezin dela jakitera eman. Hori bai, gaztea izango dela ziurtatu zien.

Maripi Sarasolak, Urnietako sinestunen izenean, Muruari eskerrak zizkion mezan barrena.

"Eskerrik asko Urnietan egin duzun lanagatik, eta erakutsi diguzun gertutasunagatik. Motza izanagatik zure egonaldia, ona izan da. Eliza ez dago bere momenturik onenean, eta apaiz eskasiagatik hor ibili zara beste herrietako parroketan. Orain, beste betebeharrak egiteko beharra sentitu duzu, beste helburu batzuei aurre egiteko. Animo Xabier! Zu gaztea zara, bizia eta ernea, eta oraindik asko dauka emateko. Herriaren eta elizan egin duzun lanagatik, eskerririk beroenak!".

Hamaiketako Kontzejupean

Xabier Muruak ere hizpide izan zuen bere agurra, nahiz hitz murriztatu jardun. Urnietak asko ikasi zuela, gertutasuna eta maitasuna sentitu zuela, eta elizako laguntzaile guztiei zein sinestun guztiei oraindano bezain fin segitzeko eskatu zien".

Meza nagusia bukatutik, kontzejupean bildu ziren mezan parte hatu zuten guztiek. Bertan, zizka-mizka goxoak tarteko, segida eman zioten agur ekitaldiari.